



ERMUKO UDALERRIAN 300 EROSKETA-GURDITXO

ZOZKETATZEKO OINARRIAK

HOJA 1.

ERMUKO UDALA

Ermuko Udalak, Ermua-Bizkaiko Valdespinako Markesa 1ean helbidea duenak, zozketa bat antolatuko du Espainian bizi diren adin nagusiko pertsona guztientzat.

Helburua

Ermuko Udalak, Bizkaiko Foru Aldundiarekin elkarlanean, zozketa hau antolatuko du, erabiltzaileak hondakinak gutxitzen bultzatzeko, berrerabilgarriak ez diren plastikozko erosketa-poltsak barik erosketa-gurditxoa erabiliz. Horretarako 300 EROSKETA-GURDITXO ZOZKETATUKO DITU HERRIKO DENDETAKO ERABILTZAILEEN ARTEAN.

Kanpainaren iraupena

Kanpaina hau azaroaren 19tik abenduaren 18ra erosketak Ermuko dendetan egiten dituzten pertsona guztientzat izango da, eta zozketa 2012ko abenduaren 19an egingo da.

Parte hartzeko baldintzak eta modua

- Jarduera honetan parte hartu nahi duten merkatariak 2012ko azaroaren 8tik 15era eman beharko dute izena, 943 179141 telefono zenbakira deituz edo ondorengo helbide elektronikoaren bitartez nrua@udalermua.net.

Kanpaina honetan parte hartzen duten merkatariak saltegiaren izena eman beharko dute, harremanetarako pertsonaren izena, helbidea, telefono zenbakia eta helbide elektronikoa. Saltegi bakoitzeko eskaera bat eta bakarra egin ahal izango da.

Jarduera egiteko, erosketa-gurditxo bat emango zaio kanpaina honetan parte hartzen duen saltegi bakoitzari, bertan txarteltxoak sartzeko. 300 baino gehiago badira parte hartzen duten saltegiak, zozketatu egingo da gurditxoa zein saltegitara banatuko den, eta gainerako saltegiak beste modu bat erabiliko da txarteltxoak sartzeko.

Azaroaren 16tik aurrera saltegiak eskaera egiten duten egunetik 2012ko abenduaren 18ra arte parte hartu ahal izango dute jarduera honetan, eta gurditxo bat izango dute, partaideak 300 baino gehiago ez badira.

- 2012ko azaroaren 16an gurditxoak, txartelak, kartelak eta jardunbide egokien eskuliburuak emango zaizkie merkatariak, kanpainari hasiera emateko.
- 2012ko azaroaren 16an, halaber, hiruorrikoa banatuko da herriko etxebizitza guztietara, kanpainaren berri izan dezaten.
- 2012ko azaroaren 19tik abenduaren 18ra herriko dendetan erosketak egiten dituzten pertsonak txartel bat bete eta gurditxoan utziko dute zozketan parte hartzeko. Merkatariak txartel bat emango dute erosketa bakoitzeko.

- 2012ko abenduaren 19an, eguerdiko 12:00etan, 300 erosketa-gurdixoren zozketa egingo da jendaurrean, Ermuko Udalaren Biltzar Aretoan.

Pertsona bakoitzak erosketa-gurditxo bakar bat eskuratu ahal izango du. Irabazlea aurkitu ezin bada, saria nahi ez edo web orrian irabazleen zerrenda jakitera eman eta 30 egunen buruan saria jaso ezean, ordezkoiari esleituko zaio.

- 2012ko abenduaren 20an egingo da zozketan sarituak izan direnen zerrenda eta ordezkien zerrenda.
- 2012ko abenduaren 21ean argitaratuko da udal web orrian saritutakoen zerrenda eta posta elektronikoz ere bidaliko zaie kanpainan parte hartu duten saltegiei.

Egun horretatik aurrera sariak Abiapuntu bulegoan (Konbentukoa 3, etxabea) jaso ahal izango dira goizeko 8:00etatik 15:00etara.

Sariak

Saria erosketa-gurditxo bat izango da.

Irabazleari jakitera ematea

Zozketa egin eta, gehienez, astebeteko epean telefonoz deituko zaie irabazleei. Sarituta gertatu direnen zerrenda udal web orrian ezagutzera eman eta 30 egunen buruan erosketa-gurditxoa jaso ezean, ordezkoiari deituko zaio.

Publizitatea

Ermuko Udalak bere web orrian argitaratuko du pertsona irabazleen izena, eta kanpainan parte hartu duten saltegien bitartez ere emango du jakitera.

Oinarriak onartu beharra

Zozketan parte hartze hutsak oinarri hauetako baldintzak erabat onartzen direla esan nahi du, bai eta irabazleen zerrenda eta sari-banaketako argazkia argitaratzea espresuki.

Ermuan, 2012ko azaroaren 5ean